

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoei dagokionez ezinbestekoak dira hauek:

- Eraikinak eta instalazioak: fabrikak, bulego-eraikinak, biltegiak, zelaiak eta bestelako eraikinak.
- Garraibideak: kamioiak.
- Materialak eta hondakinak: Ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko materialak. Eragiketek sortutako hondakinak.
- Askotariko makineria eta tresneria: Bulegoko altzariak eta ekipiak: konputagailuak, mahaigainak, altzariak, inprimagailuak, telefonoak.
- Ekipiak, IT barne: Ekipo ukigarriak. Hardwarea, ordenagailuak, zerbitzariak...
- Larrialdietarako ekipamendua: Suteen aurkako sistemak, besteak beste.
- Aseguruak: Baliabide fisikoak babesteko beharrezkoak diren aseguru guztiak (suteen aurkakoak, hausturak, galtzeak).

Baliabide intelektualei begira, gure enpresa lehenengoz patentatu beharko zen, beste edozein enpresa kopia ez dezan gure ideia. Guk, enpresa honen sortzeileak, oso kontzientatuta gaude birziklapenarekin, ingurumena zaintzeko; beraz, bezeroen ezagutza alda dezakegu birziklatzera animatuz eta gizarte arduratsuago bat sortuz.

Giza baliabideei buruz, alde batetik makinaren edukia (papera, kartoia...) garraiatzen duten kamioilariak ezinbestekoak dira. Bestalde, zuzendariak ere beharrezkoak dira baita papera eta diruaren kontuak eramaten dutenak, arazo bat egonez gero bezeroekin hitz egiten dutenak...

Azkenik, finantza-baliabideari begira:

- Eskudirua, birziklatzean jendeak jasoko lukeena.
- Banku-gordailuak.
- Bankuak epe luzera eta epe laburrera emandako kredituak edo maileguak.